

EUSKAL MUSIKA ETA MUSIKARIAK

Gogoeta kolektibo bat

Arkaitz Minerrek helarazia 2018-0011-29

Euskararen Langile Autonomoak

Herri musikak eduki sinbolikoen ekoizpenean berebiziko garrantzia izan du, diskogintzaren garapenaren aroan. Herri musikak, eta ondorioz, herri musikari eta kantariak baitaezpadako lana egin izan dute memoria kolektiboaren eraikuntzan. Herri musikak, azken berrogeita hamar urte hauetan hizkuntza komunitatearen autoirudiaren eraikuntzan berealdiko funtzioa bete izan du. Halaber, musikari zein kantariak (ahotsa eta interpretazioa dagoelarik) ondare kolektiboaren berrerabilpena egin izan dute (kantu zaharrak, irudiak eta beste); hots, tradizio eta ondarearen berrirakurketa dinamikoa abiaraziz.

Musikariak eta Kantariak hizkuntza berrituaren, hots, euskara batuaren garapen sozio-historikoan (...) ezinbestekoak izan dira, bai dimentsio estetiko zein estelistikoak proposatzerakoan, bai jarduanaren oldozpenari dagokionez, bai berau masiboki sozializatzerakoan. Labur esanda: gaur gaurkoz hizkuntza berritua esfera publikoan txertatzen dute eta beronen haragiztatzea performatzen dute Euskal Herriko Kantari eta Musikariak, Euskal Herriaren geografia osoan zehar.

Musikariak eta Kantariak hizkuntza minorizatu batean jardutearen ezaugarriak dituzte ezagutzen; nolana den, ofizioaren berezitasunak onartzen dituzte. Urteen poderioz metatu den esperientzia kolektiboak, ofizioaren izaerari dagokionez, funtsezko gogoetak biltzen ditu. Hots, gizartearekin etengabeko harreman komunikatiboan egoteak, ezagutzamultzo bat pilatzea ekarri du; tangibleak diren ikuspegiak.

Musikariak ospakizun sinboliko orotan parte hartu izan dute garaian garaiko ekimenetan (Ikastolen sorreran, tokiko programazio lokaletan, udaldiko denboraldian, euskararen inguruko aldarri, eta oro har, euskatzale ospakizunetan). Musikariak eta Kantariak garaian garaiko eta unean uneko dimentsio subjektiboaren testigantza gizarteratzen lagundu izan

dute; finean, hizkuntza estetikoa propioki baliatuz jendartearen oihartzuna lortzeko. Hots, gizarte kezkei bisibilitatea eskainiz nola dinamika sozialetan dimentsio zabalagoak proposatuz.

Musikari eta Kantarien garapen profesionalak egun ez ditu baldintza egokiak eskuragarri. Ondorioz, erabakigarria da neurri zehatzak hartzea eta norabide mankomunatuak garatzea, aurrera egingo bada. Profesionaltasun baldintzak eskuratzeko ofizioak ikuspegi beregaina eta autozentratua behar luke izan. Kantariak eta musikariak lirateke lehen interesatuak bide hori urratzeko. Aipatu ofizioak beste edoizen ofizio liberal batek merezi duen duintasun bera izateko, ikuspegi sistemikoa lantzea eskatzen du. Hots, baldintza objektiboak egon dauden arren horrelako lan bat burutzeko, egun ez da halakorik gertatzen, ezta hurrik eman ere.

Kantari eta musikarien egoera

Kantari eta musikari euskaldunak erabat abandonatuta daude beraiek babesteko kultur politikarik ez dagoelako (beraz sorkuntzarako ezta ere), partidu politiko bakar batek ere ez du halako proposamenik bere agenda politikoan. Beraz abandonatuak politikan, telebista eta irratietan, hezkuntza sisteman, erakundeetan, unibertsitatean...

Modu batean gizartearentzat nolabaiteko erreferentzia izan daitezke kantari eta musikari asko, momentu berezi batzuetan erakunde, komunikabide zein politikarien aipamen eta omenaldiak jasoko dituzte erreferentziazko musikariek zalantzarik gabe, baina errealitatean abandonoa nabaria da. Bestalde, prekaritatea nabaria da musikari eta kantari izen handiko profesionalen artean, nahiz eta gizarteak hori ez jakin.

Euskal kantari eta musikari batzuk profesional autonomoak dira, beste batzuk berriz beste lan bat daukate, irakasle funtzionari etab... eta hauek bestelako kezkek daukate, beraien premiak sindikatu tradizionalak betetzen dituzte. Musika ez dutenez ogibide, ez dute **kantari ala musikari profesionalon egoera** bera.

Euskal musikari langile autonomoak izugarri ugaritu dira azken urteotan: lan merkatuak ez du nolana kontratatzen. Ondorioz, **prekarietatean** bizi den euskal kantari eta musikari multzo bat sortu da. Askok, tarteka baino ez du alta ematen autonomo bezala. Beraz, azkenean, beste lanbide batzuetara aldatzeko kondenatuak daude, lanbide bezala ezintasuna edukita, gizartean ere behar bezalako baldintzarik ez dutelako proiektu artistikoak garatzeko orduan.

Adibide bat: euskararen kantari eta musikari autonomoen egoera

- Euskal musikak, euskararen kultur arlo guztiak bezala, laguntza eta babes behar du kultur ejemonikoen aurrean. Hezkuntza sisteman, komunikabideetan eta kultur politikan euskarazko sorkuntzaren aldeko baldintzak sortu behar dira.
- Geografikoki lan egiteko esparru limitatu bat dauka euskal kantari eta musikariak, batez ere euskaraz hitza oso presente duten proiektuetan. Euskal Herritik haratago oso zaila da kontratatua izatea.
- Komunikabideetan ez dago kriterio minimorik euskal musika minimo bat jartzerako orduan, ezta ere bertako irrati eta telebista publikoan. Beraz musikarien sorkuntzek gizartera iristeko zailtasun handiak dituzte.
- Irrati publikoetako gazteentzako musika eskeintzan, estetikoki aukeraketa murrizta egiten da, kriterio desegokiak daude musika desberdinak aukeratzeko orduan. Irudi berezi baten aldeko aitzakiarekin, musika proposamen aukera asko baztertzen dira, eta esatarien hizkuntza bera ere erderakada askokoa izatera iristen da.
- Atzetik datozen belaunaldi berrietan ez dago aurrekoen erreferentzia transmisiorik, beraz euskarazko sorkuntzak munduko miloika proposamen artistikoen artean galdua agertzen dira gizartearen aurrean, lokalizatzeko zailtasunarekin, euskarazko proposamenak transmititzeko zailtasunarekin. Kontziente gara gure gazteek iada ez dituztela guretzat erreferenteak izan diren euskal sortzaileak ezagutu ere egiten.

- Anabasa handia daukagu **autonomo estatus**ean, toreroekin batera... Denen onerako egokitzapen bat aztertu behar litzateke. Iparraldeko eta Frantziako ereduak kontutan hartu beharko litzateke: **Intermittent du spectacle**.
- Diska bat argitaratzeko **kontratu abusiboak** sinatzen ditugu, kasik editorial guztiek erabiltzen dute eredu bera.
- Kontzertu baten antolaketan musikariak jarria duen prezioa ezbaian jartzen da askotan, eta gure egoeraz baliatzen dira ondorio ekonomikoekiko ezjakintasuna dela eta.
- Oro har musikariek noraeza dugu lan desberdin bakoitzari tarifak zeazteko orduan.
- Jubilatze garaia oso prekarioa da batez ere lan bizitza prekario baten ondoren. Egindako lanaren balio handiago bat beharko litzateke eta hori jubilazioan islatu. Artisten jubilazio egoera hobetu beharko litzateke.
- Behar bezalako bajak beharko lirateke gaixoaldiak direla ala edozein ezintasuna dela eta.
- Jendaurreko emanaldietan antolatzeko orduan, antolatzailea profesionala izan ala ez, infraestruturaren baldintzetan ala baldintza ekonomikoen kudeaketan nahasmen handia dago: Emanaldia egingo den lekua antolaketaren desegokia; emanaldiaren behar bezalako ez edatzea; antolatzaile, bitartekari eta artistaren diru kudeaketa desegokiak... guzti hauek artista eta musikariaren aurka doaz beti, antolatzailea beti babestuta dagoelarik.
- Euskal musikarientzat errepide gastuak handiak dira, instrumentu eta infraestruturaren beharra, hauen BEZa osoki ordainu beharra, entsaio lekuak lortzeko zailtasunak handiak dira.
- Proiektu desberdinak aurrera eramateko entsaio lokalak behar dira eta ez daude erraz eskuragarri.

- Guzti honen kontzientzia gizarteratzea beharrezkoa da, pedagogia minimo bat sortzea.

Euskararen langileen sindikatu ala elkarte baten zereginak

- Euskararen langileen **esparru desberdinekin harremana** edukitzea.
- **Autonomoen epigrafeen anabasean ordena apur bat ezarri eta onuragarriena zaien huraxe proposatzea. Alholkua behar dugu denok.**
- Bere **interes moral eta ekonomikoak** defendatzea antzerkietan, kantugintzan, telebistan, irratan, paperean eta digitalean (egoeraren diagnostiko zehatza, aurrez)
- **Tarifa estandar minimoak** proposatzea kontzertuetan, grabazioetan, telebistaz grabatutako kontzertuetan, eskola klaseetan...
- **Epe luzeko estrategia** antolatzea, bekak eta bestelako aukerak aztertuz sorkuntzaren alorrerako.
- **Kultur politika** eraginkor bat proposatzea erakundeei, udaletxeei, partidu politikoei.
- Informazioa jasotzea **Ipar Euskal Herriko** euskararen langileen egoeraz, **harremana** kultur politika arloan, alde laboralean...
- -Musikari publikoaren figuraz gogoeta egitea.
- Euskal Musikaren legea proposatzea, sortzaileen eskubideak errespetatzeko eta entzunzaletasuna bultzatzeko.
- **Indar koherzitiboa** baliatzea, salaketa alegia, merkatu legearen ala euskalgintzaren aitzakian gertatzen diren abusuak eragozteko.

- Euskararen langile autonomoen **egoera duintzea**, bere ahotsa altxatzea.
- Elkarren laguntzarako **kutxa** sortzea.
- **Ikastaroak** antolatzea profesionaltasunari dagozkion jakinbehar ekonomikoetan zein lanbidekoetan.

Aipatu ditugu egoeraren bi faktore handi: **prekarietate berri bat** eta **urteetako inpunitatea kontratatzaileen aldetik**. Bi faktoreok indartzen dituzten jarreraren artean daude halako axolagabekeria bat autonomoak ez diren lankide askoren aldetik, profesionaltasunaren ondorio ekonomikoekiko ezjakintasunari lotua, eta autonomo gazteen etsipena.

Euskarak alor ekonomiko asko ditu langile autonomoetan, eta ezaugarri partikularrak daukate alorrok. Guztien artean, **euskalgintzaren zati garrantzitsu bat** hartzen dute, dinamikoena sarritan, eta gaizkien tratatua behar baino gehiagotan.

Kantari eta Musikarien arloa

- Komunikabideetan kupo bat ezartzea, emititzen den portzentai bat euskarazko musika izatea. Irrati eta telebisten lizentzietatik borrokatu behar da? Frantzia eta Alemania bezalako herrialdeak.
- **Autonomoen epigrafeen anabasean** ordena apur bat ezarri eta onuragarriena zaien huraxe proposatzea. Alholkua behar dugu denok. Batzuk lanbide liberaletan daude, beste batzuk artistikoetan, toreroekin batera... Denen onerako egokitzapen bat aztertu behar litzateke.
- Disketxeekin kontratu abusiboak ekiditea, noraeza dago, horretarako behar bezalako informazioa behar dugu eta kontratu justuago batzuk behar dira.

- EAEko gobernua Segurantzaren eskumena eskatzen ari den uneon, garrantzizkoa jotzen dugu **euskararen langileen estatus berezia** sortzea, lanbide estrategiko bezala gure hizkuntzaren garapenean eta hedapenean. **Tarifa estandar minimoak** proposatzea, disketeekin, antolatzaileekin, udaletxeekin, musikarion artean, etab...
- Musikariak batzuetan kontratatzaileak ere bagara, besteetan langilea, gure artean ere elkar kontratatzen gara, batzuetan kontratatzaile eta besteetan kontratatua. Era berean, kontratazio nagusia musikaria ez den beste erakunde, antolatzaile ala diskete batek kontratau dezake. Beraz gure artean ere kontzientzia bat bultzatu beharra dago, informazioa behar da egin beharreko lanek duten balioa kontutan hartuz.
- Musikariak idazle izan daitezke aldi berean, baina hitza erabiltzen ez duten musikari askok ere harreman berezia dute euskararekin: kantugintzan ala musika instrumentalean, Euskal Herriko folklore, herri musika ala garaikidean (euskal literatura ala euskal herri musika dago beren lanen oinarrian).